# EZ OHIKO eta PREMIAZKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2011IPLE0002
**Eguna:** 2011-02-09
**Ordua:** 11:40-12:10
**Tokia:** Areto nagusia

## Bertaratuak

| | |
|---|---|
| - Bixente Arrizabalaga Bengoetxea | HAMAIKABAT |
| - Juan Joxe Uranga Mendiburu | HAMAIKABAT |
| - Imanol Lizarralde Marín | HAMAIKABAT |
| - Eloy Bazan Bazan | HAMAIKABAT |
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo | EAJ/PNV |
| - Mª Jesús Arruabarrena Izagirre | EAJ/PNV |
| - Ramón Aranzasti Loyarte | EAJ/PNV |
| - Jose Angel Sanchez Gallardo | PSE-EE |
| - Jose Manuel Herzog de Bustos | PP |
| - Carlos de la Peña Hornés | Atxiki gabeko taldea |

## Bertaratu ez direnak

- - David Franco Chavale EB-B

## Idazkaria

- Xabin Olaizola Lasa

## Aztergaiak

| EGUNEKO AZTERGAIAK | Zk / Nº | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| **Tximelako epaia betearaztea** | **1** | Ejecución sentencia caso Tximela |
| **Elgopebiko epaia betearaztea** | **2** | Ejecución sentencia caso Elgopebi, S.L. |

## Esan-eginak eta erabakiak

| | |
|---|---|
| Aldez aurretik alkateak 2 puntu jasotzen dituen Osoko Bilkura hau eragin duen premiazko deklarazioa berresteko eskatu du. Udalbatzako | Previamente el Alcalde somete a su ratificación la declaración de urgencia por la que se celebra este pleno con estos 2 puntos. Los miembros de la |

| | |
|---|---|
| kideen aldeko botoekin Carlos de la Peñarena izan ezik abstenitu delako premiazko deklarazioa berretsi dute eta Osoko Bilkurari hasiera eman zaio deialdiaren gai-zerrendan jasotako puntuei jarraiki. | Corporación Municipal con los votos a favor de todos los concejales,salvo Carlos de la Peña que se abstuvo proceden a la ratificación de la urgencia y se inicia el pleno conforme a los puntos contenidos en el orden del día de la convocatoria |

**1. Tximelako epaia betearaztea**

Alkateak Osoko Bilkurari aurkeztu dio aurretik egindako Ogasun Batzordearen proposamena. Bertan honako hau proposatu da:

Auzitegi Nagusiak emandako aldeko epaiaren ondorioz, egokia da Tximela SA enpresari epaia betearazteko eta Bidebitarteko udal-lurzatian gauzatzen ari den okupazioa bertan behera uzteko eskatzea.

Proposamena bozkatu ondoren, aho batez onartu da.

**1. Ejecución sentencia caso Tximela**

El Alcalde somete al Pleno la propuesta de la Comisión de Hacienda celebrada previamente en la que se propone:

A resultas de la sentencia favorable al Ayuntamiento dictada por el Tribunal Superior de Justicia procede exigir a la empresa Tximela S.A.la ejecución de la sentencia y el abandono de la ocupación que está realizando en la parcela municipal sita en Bidebitarte.

Sometida a votación la propuesta es aprobada por unanimidad.

**2. Elgopebiko epaia betearaztea**

Alkateak Osoko Bilkurari aurkeztu dio aurretik egindako Ogasun Batzordearen proposamena. Bertan, honako hau proposatu da:

2011/2/1ean, Elgopegi SLk eskatutako epaiaren –Auzitegi Gorenak apelazioa ebatziz emandakoaren– betearazpena jaso da eta hori dela-eta 415.896,24€-ko zenbatekoa eta dagozkion legezko interesak ordaindu behar dira.

**2. Ejecución sentencia caso Elgopebi, S.L.**

El Alcalde somete al Pleno la propuesta de la Comisión de Hacienda celebrada previamente en la que se propone:

Resultando que se ha recibido con fecha 1/2/2011 la ejecución de sentencia solicitada por Elgopebi S.L. en relación a la sentencia recaída en apelación por el Tribunal Supremo por el que debe de abonarse la cantidad

| | |
|---|---|
| | 415.896,24€, más los intereses legales. |
| Tokiko Gobernu Batzordea otsailaren 4an bildu zen eta epai hori betearazteko ezohiko eta premiazko Osoko Bilkurarako deialdia lehenbailehen hasteko agindu zuen. | Considerando que la Junta de Gobierno Local reunida con fecha 4 de febrero ordenó iniciar con urgencia la convocatoria de Pleno extraordinario y de urgencia para la ejecución de esta sentencia. |
| Emandako epaia aintzat hartuta, honako erabaki hauek hartzea proposatu da: | Se propone que a la vista de la sentencia recaída se adopten los siguientes acuerdos: |
| 1.- Aipaturiko epaia betetzea. | 1º.- Ejecutar la precitada sentencia. |
| 2.- Epaian adierazten den zenbatekoa eta eratorritako interesak ordaindu ahal izateko partida gaituko duen 2011/1 kredituen aldaketa onartzea eta dagokion gastua baimentzea. | 2º.- Aprobar la modificación de créditos 1/2011 que habilite la partida para el pago del importe reseñado en la sentencia así como de los intereses que se deriven, autorizando el correspondiente gasto. |
| 2011ko udal-aurrekontua onartzen denean, aldaketa hori bertan jasoko da. | Esta modificación quedará integrada en el Presupuesto Municipal 2011 cuando se proceda a la aprobación del mismo. |
| 3.- Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan (2. sekzioa) epaiaren zenbatekoa zuzenean ordainduko da, kontzeptu gisa “283/01 Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoaren 2/10-2 epaiaren betearazpena” adierazita, Auzitegi horrek Banesto taldean duen kontuan. | 3º.- El pago material del importe de la sentencia se abonará directamente a la Sala Contencioso Administrativa del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco (Sección 2ª), reseñando el concepto: ejecución de sentencia nº2/10-2 del R.C.A. nº 283/01, en la cuenta que dicho tribunal tiene en el Grupo Banesto. |
| Proposamena bozkatu eta honako emaitza honekin onartu da: Hamaika bateko 4 kideek eta EAJ/PNVko 3 kideek aldeko botoa eman dute eta PSE-EE eta PP udal-taldeetako eta udal-talde ez atxikiko zinegotziak abstenitu egin dira. | Sometida a votación la propuesta se aprueba la misma con el resultado siguiente: votan a favor los 4 miembros de Hamaika bat y 3 de EAJ/PNV, y se abstienen los concejales de los grupos municipales PSE-EE,PP y no adscrito. |
| Botoaren azalpenean, Jose Angel | En la explicación de voto el concejal |

Sanchez zinegotziak adierazi du epai hori Udalaren egoera txarreko ekonomian beste makilakada bat gehiago izango dela eta 2011ko aurrekontuan eragina izango duela, epaiaren zenbatekoa ordaintzeagatik inbertsioa murriztuko delako; zenbateko dezente handiaz ari garenez, hitzarmena sinatu zuen alkatearentzat erantzukizun politikoak eskatu ditu.

Jose Angel Sanchez que esta sentencia supone un palo más en la maltrecha economía del Ayuntamiento y que tendrá reflejo en el presupuesto del 2011 con una reducción de la inversión por importe del pago de la sentencia; la cantidad no es nada despreciable y pide responsabilidades políticas para el alcalde que firmó el convenio

Jose Manuel Herzog zinegotziak Jose Angel Sanchez zinegotziak egindako adierazpenekin bat egin du eta adierazi du hitzarmen hori sinatu zuen alkateak ez lukeela inongo hauteskunde-zerrendatan azaldu behar.

El concejal Jose Manuel Herzog se suma a las manifestaciones realizadas por el concejal Jose Angel Sanchez, y señala el alcalde que firmó ese convenio no debería figurar en ninguna lista electoral.

Carlos de la Peña zinegotziak adierazi du horiek aurreko Udalen –profesionaltasuna baino borondate gehiago azaltzen zutenen– hipotekak direla eta espero duela hipoteka gehiagorik ez izatea; ardura politikoak eskatu ditu beraien funtzioa gobernuko taldearen lana fiskalizatzea baita.

El concejal Carlos de la Peña indica que son hipotecas de anteriores ayuntamientos que denotaban más voluntarismo que profesionalidad y espera que no haya más hipotecas;que pide responsabilidades políticas porque es nuestra función fiscalizar la labor del equipo de gobierno.

Juan Jose Uranga zinegotziak adierazi du epaia betetzetik lortzen diren aprobetxamenduak udal-ondarera igaro behar dutela Bidebitarte birpartzelazio-proiektuan egin litezkeen aldaketen ondorioz. Hirigintzako aholkulari juridikoarekin epai horri loturiko alderdiak betearaztea bideratuko da udal-ondarera atxiki behar diren elementuak atxikitzea bermatzeko.

El concejal Juan Jose Uranga indica que los aprovechamientos que se obtengan por la ejecución de la sentencia pasen a patrimonio municipal a resultas de posibles modificaciones del proyecto de reparcelación de Bidebitarte y con la asesora juridica de urbanismo se canalizará la ejecución de los aspectos vinculados a esta sentencia, para garantizar que elementos deben de adscribirse al patrimonio municipal.

Zorione Etxezarraga zinegotziak gertaera horren aurrean bere haserrea agerian utzi du eta adierazi du oso gogorra iruditzen zaiola Udalak epai

La concejal Zorione Etxezarraga manifiesta la indignación ante este hecho y señala que le parece muy duro que el ayuntamiento tenga que ejecutar

hori bete beharra. EAJ/PNVk gogoeta bat egingo du eta aurrerago emango du balioespena.

esta sentencia. EAJ/PNV hará una reflexión y haremos una valoración más adelante.

Alkateak adierazi du gai hori aspaldikoa dela, heredatutakoa, hainbat legegintzalditan hartutako erabakiak direla eta orain guri egokitu zaigula egoera txarrena, hau da, ordaintzea. Gai hori ez dagokio Udalbatza honi baina epaia bete egin behar da.

El alcalde señala que este tema viene de lejos, es una herencia y son decisiones que se tomaron en varias legislaturas y ahora nos toca a nosotros la peor situación que es abonarla. Este tema no es atribuible a esta Corporación pero se debe afrontar su ejecución

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2011ko otsailaren 9an

**Xabin Olaizola Lasa**
**Idazkaria**